



HUTS-ZUZENKETA, honako Ebazpen honena: 2023ko irailaren 28ko Ebazpena, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta horietara sartzeko egonkortzeko lehiaketa-oposizioan eta ohiko lehiaketa-oposizioan oposizio-faseko probak egiteko lekuak eta datak jakinarazten duena (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren).

Akats bat antzeman da. Izan ere, zenbait espezialitate ez dira aipatu Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2023ko irailaren 28ko Ebazpenaren 2.2.B) ataleko 1. paragrafoan. Ebazpen horren bidez, Maisu-maistren, Bigarren Hezkuntzako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko eta Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta horietara sartzeko egonkortzeko lehiaketa-oposizioan eta ohiko lehiaketa-oposizioan oposizio-faseko probak egiteko lekuak eta datak jakinarazi ziren (hautaketa-prozedurak Hezkuntzako sailburuaren 2022ko abenduaren 19ko Aginduaren bidez deitu ziren); hori 2023ko irailaren 29an argitaratu zen Hezkuntzako web-orrian. Hori dela-eta, zuzendu egiten dira:

2. orrialdean, 2.2.B) Egonkortzeko lehiaketa-oposizioaren proba praktikoa ataleko 1. paragrafoan,

honako hau dioenean:

“2.2.– EGONKORTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA (Bigarren Hezkuntzako eta Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen kidegoak):

(...)

B) Proba praktikoa (honako espezialitate hauek egin behar dute: Enpresen administrazioa, Eraikuntza zibilak eta eraikuntza, Fabrikazio mekanikoko antolamendua eta proiektuak, Energia-sistemen antolamendua eta proiektuak, Sistema elektroteknikoak eta automatikoak, Esku-hartze soziokomunitarioa, Merkataritza-prozesuak, Eraikuntza-proiektuen bulegoa, Instalazio elektroteknikoak, Ekipo elektronikoak, Irudi- eta soinu-teknikak eta prozedurak, Aplikazio informatikoen sistemak, Prozesu-eragiketak, Diagnostiko klinikoko prozedurak eta ortoprotesikoa, Osasun- eta asistentzia-prozesuak eta Gizartearentzako zerbitzuak).”

honako hau esan behar du:

“2.2.– EGONKORTZEKO LEHIAKETA-OPOSIZIOA (Bigarren Hezkuntzako eta Musikako eta Arte Eszenikoetako Irakasleen kidegoak):

(...)

B) Proba praktikoa (honako espezialitate hauek egin behar dute: Enpresen administrazioa, Nekazaritzako produkzio-prozesuak, Eraikuntza zibilak eta etxegintza, Fabrikazio mekanikoko antolamendua eta proiektuak, Energia-sistemen antolamendua eta proiektuak, Sistema elektroteknikoak eta automatikoak, Sistema elektronikoak, Ostalaritza eta turismoa, Analisi eta kimika industrialak, Esku-hartze soziokomunitarioa, Merkataritza-prozesuak, Nekazaritzako produktzio-eragiketak eta ekipoak, Eraikuntza-proiektuen bulegoa, Instalazio elektroteknikoak, Ekipo elektronikoak, Irudi- eta soinu-teknikak eta prozedurak, Aplikazio informatikoen sistemak, Prozesu-eragiketak, Diagnostiko klinikoko prozedurak eta ortoprotesikoa, Osasun- eta asistentzia-prozesuak eta Gizartearentzako zerbitzuak).”